

Ahozko aurkezpenaren ebaluazioa

	Oso ondo (4)	Ondo (3)	Erdizka (2)	Eskas (1)	Puntuak
Aurkezpenaren erakargarritasuna	<p>Egindako lana era erakargarrian aurkeztu dute, taldekide guztiek parte hartuz.</p> <p>Diapositibak oso landuak izan dira eta ahozko azalpenekin osatu dituzte.</p> <p>Entzuleen jakin-mina piztu dute eta haiek egindako galderak erantzuteko gai izan dira.</p>	<p>Egindako lana era egokian aurkeztu dute, taldekide guztiek parte hartuz.</p> <p>Diapositibak landuak izan dira eta ahozko azalpenekin osatu dituzte.</p> <p>Entzuleen jakin-mina zerbait piztu dute eta haiek egindako galderak erantzuteko gai izan dira.</p>	<p>Egindako lana era nahiko egokian aurkeztu dute, taldekide guztiek parte hartuz.</p> <p>Diapositibak ez dira oso landuak izan eta ahozko azalpenekin osatu dituzte.</p> <p>Ez dute entzuleen jakin-mina ia piztu eta arazoren bat izan dute haien galderak erantzuteko.</p>	<p>Egindako lana ez dute era egokian aurkeztu, eta informazioa ez dute taldekide guztiek eman.</p> <p>Diapositibak landu gabeak dirudite.</p> <p>Ez dute entzuleen jakin-mina piztu eta arazo asko izan dute haien galderak erantzuteko.</p>	
Talde kudeaketa	<p>Taldekide bakoitzaren papera oso ongi definituta egon da.</p> <p>Bakoitzak ondo aurkeztu du bere lana eta gainera besteena ezaguna izan du.</p> <p>Aurkezpena oso orekatua izan da.</p>	<p>Taldekide bakoitzaren papera ongi definituta egon da.</p> <p>Bakoitzak ondo aurkeztu du bere lana eta besteena ez zaio ezezaguna egin.</p> <p>Aurkezpena orekatua izan da.</p>	<p>Taldekide bakoitzaren papera ez da egon erabat definituta.</p> <p>Bakoitzak ondo aurkeztu du bere lana, baina ez du besteena ezaguna izan.</p> <p>Aurkezpena ez da orekatua izan.</p>	<p>Taldekide bakoitzak bete beharreko papera ez da definituta gelditu.</p> <p>Bakoitzak bere erara egin du aurkezpena.</p> <p>Aurkezpena ez da batere orekatua izan.</p>	

<p>Kinesia</p>	<p>Entzuleei begira hitz egin dute. Aurpegiaren keinuek, gorputzaren jarrerak eta eskuen erabilerak lanarekiko interesa gogoz piztu dute entzuleengan.</p>	<p>Entzuleei begira hitz egin dute. Aurpegiaren keinuek, gorputzaren jarrerak eta eskuen erabilerak lanarekiko interesa piztu dute entzuleengan.</p>	<p>Entzuleei begira hitz egin dute gehienetan. Aurpegiaren keinuen, gorputzaren jarreraren eta eskuen erabileraren bitartez entzuleengan lanarekiko interesa pizten saiatu dira, baina behartuak izan dira.</p>	<p>Entzuleei begira hitz egin dute batzuetan. Ez dute jarrera egokia izan, ez dute aurpegi keinurik edota esku mugimendurik erabili lanarekiko interesa pizteko.</p>	
<p>Jarriotasuna eta ahoskera</p>	<p>Argi hitz egin dute: ozen, doinu eta abiadura egokian. Gai aldaketak azpimarratu dituzte; ideien arteko loturak oso egokiak izan dira; egitura landuak erabili dituzte.</p>	<p>Argi hitz egin dute: ozen, doinu eta abiadura egokian. Gai aldaketak azpimarratu dituzte; ideien arteko loturak egiten saiatu dira; egitura egokiak erabili dituzte.</p>	<p>Nahiko argi hitz egin dute, baina batzuetan motel eta esaldiak bukatu gabe. Batzuetan gai aldaketak azpimarratu, ideien arteko loturak egin eta egitura egokiak erabili dituzte.</p>	<p>Jarriotasunik gabe aritu dira. Gai aldaketak ez dituzte azpimarratu. Ideien arteko lotura eskasa izan da.</p>	

Estimazio eskala:

Puntuazioa	1 - 7	8 - 9	10 - 11	12 - 14	15 - 16
Kalifikazioa	Gutxi (0-4)	Nahikoa (5)	Ongi (6)	Oso ongi (7-8)	Bikain (9-10)